



Elorrioko udala

Kultura

Iturri Kultur Etxea
Elizburu, 18
48230 Elorrio-Bizkaia
Tel: 946 032 032
Faxa: 946 032 033
iturri@elorrio.net
www.elorrio.net

ELORRIOKO UDALAREN ETA ASOCIACIÓN COMPOSITOR JESÚS KEREXETAREN ARTEAN IZENPETUTAKO HITZARMENA

Elorrión, 2017ko martxoaren 8an

BILDURIK: Batetik, IDOIA BURUAGA BÁRCENA andrea, NAN 15392277X, ELORRIOKO UDALEKO Alkatea.

Eta, bestetik, BLANCA GÓMEZ QUEREJETA andrea, NAN 14243655P, ASOCIACIÓN COMPOSITOR JESUS KEREXETA elkartearen presidente moduan eta berau ordezkatzuz, aipatutako elkartearen zuzendaritza batzordearen akordiorekin bat etorritz.

AITORTU ONDOREN batak besteari behar besteko gaitasun juridikoa hitzarmena aurrera eramateko.

ADIERAZTEN DUTE:

I.-Asociación Compositor Jesús Kerexetaren helburua, beren estatutuaren arabera, hau da: Jesús Kerexeta pianojolearen ondare musikala gorde eta ezagutzera ematea.

II.-Elorrioko Udalak lankidetzaz-esparru bat formalizatu nahi du Asociación Compositor Jesús Kerexetarekin, aipatutako ekintzak sustatzeko interes amankomuna bideratzeko asmoz. Horrexegatik, ondorengo lankidetzaz-hitzarmena izenpetzen dute urtebeterako (eta diru-laguntza behar bezala zuritu arte), jarraian aipatzen diren baldintzak betetzen dituen.

III.- Asociación Compositor Jesús Kerexetak aitortzen du ogasunarekiko eta gizarte segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela eta diru-laguntzak jasotzeko ezintasun egoeran ez dagoela.

IV.- Asociación Compositor Jesús Kerexetak aitortzen du, halaber, Bizkaiko Foru Aldundian ere helburu bererako diru-laguntza eskaera egin duela eta haren ebazpenaren berri emango diola Elorrioko Udalari "Bateragarritasuna" klausulan ezarritakoaren arabera.

BETEBEHARRAK:

ELORRIOKO UDALAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA.- Elorrioko Udalak 3.000 (HIRU MILA) euroko diru-laguntza emango dio Elorrioko Asociación Compositor Jesús Kerexetari. Ordainketa 3300.481.27 diru partidaren kargura egingo da. Diru-laguntza honek xede izaera izango du, eta aipatutako elkarteak Elorrioko Udalarekin hartuko dituen konpromisoei aurre egiteko erabiliko da.

ASOCIACIÓN COMPOSITOR JESÚS KEREXETAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA.

- Jesús Kerexetaren liburu-diskaren ediziorako hainbat lanen ordainketa bideratuko du.

-Jasotako diru-laguntza justifikatzea, dagozkion egiaztagiria aurkeztuta eta 2017ko abenduaren 30a baino lehen, eskariarekin batera aurkeztu ez badu. Gastu guztiak faktura bidez egiaztatuko dira. Halaber, gainontzeko diru-iturrien zehaztapena ere emango da.

-Elkarteak laguntza emango dio Udalari, honek inoiz partitura horiekin emanaldiaren bat antolatu nahi izanez gero.

DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA.- Elorrioko Udalak honela ordainduko dio Asociación Compositor Jesús Kerexetari: %100 2017ko martxoaren 31 baino lehen ordainduko zaio, Alkateak hala erabaki ondoren.

IRAUPENA.- Hitzarmena bertan behera geldituko da Elorrioko Udalak zein Asociación Compositor Jesús Kerexetak horrela adieraziz gero.

HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA.- Asociación Compositor Jesús Kerexetak hartu dituen konpromisoak betetzen ez badira, lankidetzaz hitzarmena bertan behera geldituko da, eta jasotako diru-laguntza itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitute diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 41etik 43ra arteko artikuluek.

BATERAGARRITASUNA.- Diru-laguntza hau bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jaso daitekeenekin. Nolanahi ere, eta gain-finantzaketa izan ez dadin, onuradunak, gastua justifikatzeko orduan, beste erakundeetatik jaso izan dituen diru-laguntzen egiaztagiria aurkeztu behar ditu.

ARAUDI OSAGARRIA.- Hitzarmen honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Elorrioko Udalen diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.

Adostutakoaren lekuko, partaideak honako hitzarmen honen hiru ale izenpetu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ASOCIACIÓN COMPOSITOR JESÚS
KEREXETAREN izenean



Izp: BLANCA GÓMEZ QUEREJETA

ELORRIOKO UDALAREN izenean



Alkatetza

Izp: IDOIA BURUAGA BARCENA